

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

364 zb.
www.getxo.eus

>> 2022ko Otsaila

Nabarmen^{tze}koak

- > RE-RUB, Foam-surfing eta Diverse hautatu dituzte 2021eko Wanted-en bigarren deialdian
- > Bost tailer berri 2022ko lehen seihilekoan
- > Izenematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan

Izenematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan

Eusko Jaurlaritzak zabalik edukiko du datorren otsailaren 15era arte Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2022ko programan parte hartzeko izena emateko epea. Aukeratutako pertsonak, gehienez 100, parte hartuko dute garapeneko lankidetzako jardueratan Amerikako, Asiako eta Afrikako herrialdeetan. Esperientziaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, gehienetan uztailetik urrira. Euskadiko Autonomi Erkidegoan erroldatutako gazteentzat da ekimena, 1990 eta 2000 urteen artean jaiota, eta jarduera egingo duten herrialdeko hizkuntza ezagutu behar dute.

Profila eta gastuak ordainduta

Aukeratutako pertsonen profila helmugako herrialdeetako GGKEek aurkeztutako proiektuen beharren arabera izango da, baina honako hauekin zerikusia izan ohi dute: Hezkuntza/Hezkuntza Berezia/Pedagogia, Gizarte Lana/Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Berdintasuna, Monitorazioa, Aisialdia, Informatika, Ekonomia/Kontabilitatea, Medikuntza/Erizaintza/Zainketa Laguntzaile Sanitarioak, Farmazia, Ingeniaritza/Arkitektura, Nekazaritza, Torno/Mekanika, Elektrizitatea, Zurgintza, Iturgintza, Elikadura/ Sukaldaritza...

Eusko Jaurlaritzak ordainduko dituen gastuak hurrengoak dira: helmugako herrialdean GGKEarekin harremanetan jartzeko punturainoko joan-etorriko bidaiak, bisatua eta erantzukizun zibileko, istripuetako eta bidaiako laguntzako poliza.

Eskaerak eta zerrendak

Eskabideak online egingo dira eta identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharko da. Identifikazio-datuak, prestakuntza akademikoak, eta laneko eta boluntariotzako esperientzia eskatuko dira.

Aurrez hautatutako pertsonen zerrendak martxoaren lehenengo hamabostaldian argitaratuko dira. Ezinbestekoa izango da Barrian (Araba) egingo den topaketara joatea hautaketa-prozesuan jarraitzeko.

Baldintza orokorrak alda daitezke osasun-egoeraren arabera.

Informazio gehiago eta izen-emateak: <https://labur.us/9Izss>



BEKAK SARIAK

* **Ramón Areces Fundazioa** bekak 2022/2023 ikasturtean Gizarte Zientzietan atzerrian graduondoko ikasketak egiteko gai hauei buruzkoak: azterketa ekonomikoak, merkataritza-banaketa, ekonomia aplikatua, enpresaren ekonomia, Europar Batasuneko Historia Ekonomikoa eta Zuzenbidea. Eskaera egiteko epea: otsailaren 28ra arte. Informazioa: <https://labur.us/nkwgb>

* **EUSTORY: Eustory-History Network for Youngs Europeansek** deitutako lehiaketa. 14 eta 21 urte bitarteko gazteentzat, DBHko 4. mailako, Batxilergoko, LHko edo Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Gaia "Trabajo y crisis" da eta sarien zenbatekoa 2.500 eurokoa, 1.250 euroko lau sari, 500 euroko 5 sari eta 200 euroko 10 sari (ikasleentzat), eta 1.250€, 500€, 250€ eta 100€ (irakasleentzat). Informazioa: Eustory España: concurso@eustory.es, <https://labur.us/iiNSS> eta <http://eustory.es/reglamento>



Proiektuen sustatzailetako batzuku

RE-RUB, Foam-surfing eta Diverse hautatu dituzte 2021eko Wanted-en bigarren deialdian

RE-RUB, Foam-surfing eta Diverse proiektuak, ordena horretan, aukeratu dituzte praktikara eramateko 2021eko Wanted Lehiaketaren bigarren deialdian. Udaleko Sustapen Ekonomiko eta Gazteria Zerbitzuek, biek batera deitutako lehiaketara aurkeztu diren sei proposamenetatik hiru aukeratu dira eta diru kopuru hauek jasoko dituzte euren proiektuak errealitate bihurtzeko: 9.350€ (RE-HUB), 9.789€ (Foam-surfing) eta 859€ (Diverse). "Wanted"ek 18 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektuak babesten ditu.

RE-RUB

Jon Guisasola Uriartek, Gonzalo Pardo Iasak eta Gabriel Coca Fernándezek sustatuta, proiektuaren helburu nagusia da gizarteak sortutako hondakin plastikoei bigarren bizi bat ematea. Estrusio- eta injekzio-prozesu baten bidez eta diseinu-oinarri batekin batera, ekonomia zirkularrean oinarritutako emaitza bat lortuko da. Sustatzaileek adierazi dutenez: "Horrela, plastiko birziklatuz egindako hiri-altzariak sortuko ditugu, kanpokoak zein

barrukoak. Gure produktuen ezaugarri nagusiak, alde batetik, diseinua izango dira, birziklapenetik eta jasagarritasunetik abiatuta sortutako piezei balio erantsia ematen diena eta, bestetik, mantentze-lanetako saldu ondoko zerbitzu bat, non gure produktuen elementuetako batek kalteak jasango balitu, higadura-gatik edo hausturagatik, kaltetutako pieza baino ez da ordeztuko, eta pieza hori berriro birziklatuko da, berrerabiltzea sustatzeko eta hondakin gehiago ez sortzeko".

Foam-surfing

Proiektu hau Luis eta Tatiana Martínez de las Rivas Álvarezek sustatzen dute, eta mugikor-erako webgune eta aplikazio bat sortzean datza, surfliarientzako hiru funtzionalitate nagusi (eta antzekoak) izanik:

* olatuen aurreikuspena askoz ere zehatzagoa izatea, munduko hizkuntza nagusietan emanez.

* hondartza bakoitzaren gida bat sortzea: hareatza bakoitzaren ikuspegi osoa ematen duen xehetasuna eta mapa erakusten dira, Facebookeko profila balitz bezala, bertan hondartzaren

informazio guztia emanez. "Mapa hau Google Maps-en antzeko mapa da eta arroka arriskutsuen, korranteen, olatu-puntuen, (zaintza-zerbitzurik badago) sorosleen eta abarren kokapena erakusten du. Hala, zer olatu mota aurki daitezkeen eta zer zailtasun dauden azaltzen du, surfliariek espero dutenarekin bat datorren egiaztatuta ahal izateko", diote.

*hondartzatik gertu surfaren industriarekin zerikusia duten negozioak erakustea: surf eskolak, dendak, ostatuak, shaper-ak; web/aplikazioan promozionatu ahal izateko kuota bat ordainduko dute.

Diverse

Asociación Estudiantil Junior Empresa Riven elkarteak dago ekimen honen atzean. Bizkai-ko moda, kultura, artea eta entretenimenduaren arloan jende gazteak egiten duen lana ikusarazi nahi du, eta, ondoren, Euskal Herri osora zabaldu. "Gazte sortzaileen artean loturak sortzea eta baterako sorkuntza erraztea bilatzen dugu, bai eta haien lana ikusaraztea eta haientzako edukia sortzea ere", ziurtatu du.

Bost tailer berri 2022ko lehen seihilekoan

Gazteria Zerbitzuak doako bost ikastaro berri antolatuta ditu 11 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat. Dibertsitate funtzionala duten gazteek eskuratu ahal izango dituzte eta otsailetik ekainera bitartean emango dira Algortako Gaugun eta Romoko Guregune gazteleketan, RKE-Romo Kultur Etxean, Barinatxe hondartzan (la Salvaje) eta, horietako bat, online.

Otsailaren 27an, 11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako *Buztin polimerikoa* tailerra euskaraz emango da. Martxoaren 12an eta 19an, euskaraz ere bai, eta adin tarte bererako, *Robotika* eta maiatzaren 13an, 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat elikagai-manipulatuzailearen prestakuntza izango da, gaztelaniaz.

Apirilaren 25ean eta maiatza-



ren 6an, online, zeinu-mintzairari buruzko oinarritzko ikastaroa egingo da, 11 eta 30 urte bitartekoentzat (gaztelaniaz eta zeinu-mintzairan) eta ekainaren 11n surf ikastaroa

izango da euskaraz Barinatxe hondartzan, 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.

Informazio gehiago eta izena emateko: Gazte Bulegoa, 94 466 03 53; posta elektronikoz (gaztebulegoa@getxo.eus) eta online (www.getxo.eus/gazteria)

Arabierazko klaseak

Kulturarteko hezkuntza-ekin-tzen barruan, Gazteria Zerbitzuak arabierazko klaseen ziklo bat antolatu du berriro. Joan den asteazkenean, otsailaren 2an, egindako jardunaldiari gehituko zaizkio otsailaren 16koak, eta martxoaren 2, 16 eta 30ekoak, Romoko Guregune gaztelekuan, 18:00etatik 19:00etara. Informazioa guregunegaztelekua@getxo.eus helbidean eta 635 70 65 26 telefonoan.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 16, asteazkena: TAILERRA: ARABIAR KULTURA

Hilak 4, ostirala: LEHIAKETA: ARGAZKIAK

Hilak 8, asteartea: TAILERRA: IRRATI EGUNA

Hilak 10, osteguna: SUKALDARITZA: MASTERCHEF

Hilak 12, larunbata: IRTEERA: BOLERA

Hilak 15, asteartea: EKINTZA: PON-POIAK

Hilak 19, larunbata: TAILERRA: MUGIKORRAK ETA MENPEKOTASUNAK

Hilak 23, asteazkena: TXAPELKETA: PIN-PON

Hilak 26, larunbata: IRTEERA: ZINEMA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 3, osteguna: ASANBLADA: MARTXOKO PROGRAMAKETA

Hilak 4, ostirala: MASTERCHEF: PIZZA

Hilak 8, asteartea: ESKULANA: FINGER SKATE

Hilak 11, ostirala, 14, astelehena, eta 18 eta 25, ostiralak: PROIEKTUA: IBILBIDE FEMINISTA (BELDUR BARIK)

Hilak 12, larunbata: IRTEERA: BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Hilak 16, asteazkena: EKINTZA: JUST DANCE

Hilak 19, larunbata: IRTEERA: VIRTUAL BILBAO

Hilak 23, asteazkena: EKINTZA: LET'S SING

Hilak 25, ostirala: MASTER CHEF: TOTOPOAK

Hilak 26, larunbata: ESKULANA: BUZTIN POLIMERIKOA